

# OTABALOEN MIGRAZIOA: TRANSNAZIONALISMO-KASU AURRERATUA

Andrea Ruiz Balzola

  
Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

  
**ikuspegi@k**

Gizarte Gaien Behatokiak  
Observatorios de Asuntos Sociales



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

EMPLUGU ETA GIZARTE  
GAIRIEN SAIALA  
Garaia Garaia / Subsektoreak  
Immigratio eta Antzinarua  
Puztebidea / Cuarentas

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES  
Viceministerio de Asuntos Sociales  
Dirección de Inmigración  
y Gestión de la Diversidad





# OTABALOEN MIGRAZIOA: TRANSNAZIONALISMO-KASU AURRERATUA

Andrea Ruiz Balzola



**ikuspegi@k**

Gizarte Gaien Behatokiak  
Observatorios de Asuntos Sociales



## Aurkibidea

|  |    |
|--|----|
| Sarrera  | 5  |
| 1. Otabaloen migrazioak  | 9  |
| 2. Indigenen identitatea: postmodernitatera egokitzeko elementua | 13 |
| 3. Talde otabaloaren mugikortasuna                               | 19 |
| 4. Ikertzailearen esku-hartzeak eta harentzako erronkak          | 23 |
| 5. Hiritartasuna, estatu-nazioaren lurralde-banaketaren logika   | 25 |
| Bibliografia   | 29 |



## Sarrera

Egungo migrazio-mugimenduak gaurko globalizazio-prozesuen baitan sartzen dira, eta haien parte dira. Baieztapen hori, jada, topiko bihurtu da; izan ere, globalizazioak berak sortu eta bizkortu ditu hainbat eraldaketa, eta eraldaketa horiek, zuzenean nahiz zeharka, biztanleria-desplazamenduak eragin dituzte. Hain zuzen, aztergai dugun gaiarekin lotuta, eraldaketa horietako bat izan da nabarmen handitu direla migratzaileek haien jatorri-komunitateekin komunikazio iraunkorra eta arina izateko dituzten aukerak. Komunikazio-teknologietan eta garraioan izandako eraldaketak direla eta, jatorri-komunitateen eta helburu-komunitateen arteko loturen pisua, ugaritasuna eta garrantzia areagotu egin dira. Beraz, geografikoki urrun dauden pertsona-taldeen arteko gizarte-harremanek aurrez sekula izan ez zuten gertutasuna eta garrantzia hartu dute. Distantzia eta denbora jada ez dira oztopo nagusiak pertsonen komunitate-bizitza antolatzekeo<sup>1</sup>.

Ikuspegi epistemologikoa oinarri hartuta, eraldaketa-testuinguru horren guztia-  
ren ondorioz, iraganean migrazio-mugimenduak azaltzen zituzten teoriak ezin-  
bestean berrikusi behar izan dira. Migrazioari buruzko teoria klasikoenetan  
egiaztatutako mugak direla eta, *transnazionalismoaren* ikuspegia sortu da.  
Ikuspegi horrek, oro har, mugikortasun-prozesu baten larrialdiko fenomeno-  
tzat hartzen du migrazioa, bai geografiari dagokionez, bai ikuspegi sozial edo  
politikoari dagokionez; prozesu horretan, hain zuzen, migratzaileek egiten  
dituzten gizarte-harremanak estatu-nazio bat eratzen duten eta haren ezauga-  
rri diren muga geografikoez, kulturez eta politikoez harago daude. Horrenbestez,  
emigranteak eta etorkinak *transmigratzailetzat* hartzen dira, askotariko  
harremanak garatzen eta izaten baitituzte, eta horrez gain, hainbat  
muga zeharkatzen baitituzte haien bizitzak egituratzen dituzten alor guztietan  
(familiarra, ekonomikoa, erlijiosoa, politikoa...) (Glick Schiller, Basch eta  
Blanc-Szanton 1992, 1994, 1999; Pries 1999).

---

<sup>1</sup>Ikus, besteak beste, Giddens (1990) eta Hannerz (1996).

Ikuspegi transnazionalak alderdi asko eta konplexuak landu ditu; gainera, zati-tutako eta eztabaida gurutzatuz betetako azterketa-eremu baten aurrean gaude, oraindik ere teoriaren eta metodologiaren zehazgabetasun-maila txikia baitute<sup>2</sup>. Hala ere, uste dugu ikuspegi horrek funtsezko garrantzia duela, zantzu garrantzitsu bat jartzen baitu agerian, hots: gero eta globalizatuagoa den munduan gertatzen ari diren eraldaketen ondorioz, beharrezkoa da migrazioak aztertzeko gizarte-zientziek tradizioz erabili dituzten zenbait kontzeptu klasiko (etnia, nazioa, kultura, espazioa, denbora, etab.) birplanteatzea eta berrikustea.

Orain, gure helburua ez da irakurlea teoria transnazionalari, horren arazoei, mugei eta ekarpen nagusiei buruzko azalpen batean murgiltzea; beste zerbait nahi dugu. Hau da, modu zorrotz eta zehatz batean, azaldu nahi da migrazio transnazional kontzeptuaren bidez erreferentzia egiten zaiela estatu-nazioaren kategoriak erabiliz jada ulertu ezin diren edo, behintzat, ondo ulertzen ez diren lurraldeetako mugimendu- eta eraikuntza-prozesu batzuei. Beraz, kasu oso zehatz baten azterketa hartuko da iritzi horiek ondorioztatzeko adibidetzat edo eredutzat: otabaloen migrazioa<sup>3</sup>. Noski, abiapuntu berezia eta mugatua da, baina, hain zuzen, zehaztasun horregatik iruditzen zaigu adibide egokia; izan ere, zehazteko, espezifikatzeko eta bereizteko ahalegina eginez soilik lor dezakegu egungo migrazioak bere konplexutasunean, ugaritasunean eta zabaltasunean azterte eta ulertzen hastea.

Beraz, lan labur honen planteamendua honela egin da: hasteko, otabaloen migrazio-mugimendu propioen deskribapen etnografikoa egin da; hau da, ehunen eta artisau-lanen ekoizle eta merkatariek osatutako taldearen ezaugarri den migrazioa, mende honen hasieratik aldaketa handiak izaten ari dena. Segidan, prozesu historikoaren ikuspegiari hasiera emateko, bi ardatz zehaztu dira, otabaloen merkataritza transnazionalaren garapenaren oinarri izan direnak: etnizitatea eta mugikortasuna. Elementu horiek, halaber, egungo globalizazioaren logikaren ondorioak izan dituzte, eta horrez gain, bereziki erabilgarriak dira agerian uzteko migrazioaren azterketan egin izan diren hurbilketa tradizionalak dituzten urritasunak; izan ere, bi elementu horiek aurkakotasun-maila handia dute mugen eta lurralde-banaketen logikekin. Horrenbestez, otabalok azterketa-gaitzat aurkeztu eta gero, azken atalean ikuspegi *transnazio-*

<sup>2</sup>Hala, transnazionaltasunari buruzko literaturara gerturatzan denak kontzeptu-aukera zabala aurkituko du transnazionaltasuna definitzeko; naturaz haraindiko gizarte-espazioak (Glick Shiller eta beste batzuk, 1992; Pries, 1999); migrazio transnazionalaren zirkuituak (Rouse, 1993); komunitate transnazionalak (Portes, 1997; Smith, 1998) edo migrazio transnazionalaren espazioak (Faist, 2004).

<sup>3</sup>Testuan otabalok eta otabaloarrak izenak erabili ditugu talde indigena honi erreferentzia egiteko; dena den, Ekuadorreko testuinguru akademikoan eta politikoan, berezi egin dira. Alde batetik, kichwa otabalok daude, talde indigena, eta bestetik, otabaloarrak, Otavalo hiriko bizilagunak; azken horien multzoan, hain zuzen, guztiak ez dira indigenak.



*nalak* zalantzan jarri dituen bi alderdi azpimarratuko dira: alde batetik, orain artean migrazio-mugimenduak aztertzeko oinarri hartu den azterketa-esparrua, eta bestetik, ikuspegi horrek ezarri dituen erronkak, hiritartasunaren nozio klasikoaren lurralde-banaketako logikan.



## Otabaloen migrazioak

Otabaloak Urduña<sup>4</sup> Bizkaiko herrian finkatu zirenean ezagutu nituen; funtsean, kaleko salmentan aritzen zen talde hura. Berehala, bi gauza ikasi nituen. Alde batetik, ez zirela perutarrak, Ekuadorreko Andeen iparraldetik etorritako talde indigena bat baizik, merkataritzan ibilbide luzea eta sakona egina zutenak<sup>5</sup>. Eta bestetik, egia esan laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik ikusten nituela, Bilboko Arriagako zubiaren bi aldeetan jarrita, “jertse perutar” koloretsuak erakusgai izaten zituzten saltzaileen lerro amaigabeak egoten baitziren han; halaber, txosnetako musikarekin eta su artifizialekin nahasten zen Andeatako folk-musika jotzen zuten gazte-taldeen gogoratu nintzen. Orain badakit mende amaierako urte haiek izan zirela onenak otabaloentzat, haiek egindako arropak eta Andeatako folk-musika European saltzeko.

Nolanahi ere, 2000. urteaz geroztik Urduñara iritsi diren familia otabaloek jada ez dituzte saltzen “jertse perutarrak”, askotariko salgaiak baizik; hau da, bertako biztanleriaren kontsumo-gustuetara egokituz joan dira. Otabaloen migrazioaren bigarren aldiko familiak dira; aldi hura, hain zuzen, laurogeita hamarreko urteen amaieran hasi zen, eta migrazio hark bi faktore izan zituen ezauzgarri. Alde batetik, Ekuadorren bizi zen finantza- eta politika-krisi larria; egoera hura zela eta, 2000. urtean, hango ekonomia dolarizatu egin zen. Bestetik, Espainiako legedian 2003. urtean egin zen aldaketarekin dago lotuta, Ekuadorreko hiritarrei bisa eskatzen hasi baitziren<sup>6</sup>.

---

<sup>4</sup>Bizkaiko udalerrria da, Arabaren eta Burgosen artean kokatua, eta beraz, haiekin egiten du muga.

<sup>5</sup>Egungo Ekuadorreko errepublika, Hego Amerikaren ipar-ekialdean, lau eskualde geografikotan dago banatuta: kostaldea, mendialdea, mendebaldea edo Amazoniako eskualdea, eta uharteetako eskualdea (Galapago uharteak). Mendialdeko eskualdea Andeatako bi mendilerroen artean dago, mendebaldekoaren eta ekialdekoaren artean, eta altitude handiko tontor eta sumendiak daude bertan. Administratiboki, Ekuador 21 probintzian dago banatuta, eta horiek, era berean, kantonamenduetan; kantonamenduak ere banatu egiten dira, landa-eremuko eta hirietako parrokitan. Otavalo kantonamendua, zehazki, mendialdeko eskualdeko Imbabura probintzian dago.

<sup>6</sup>2003. urtean, Bruselan elkartu ziren Hamabosten barne-ministroek erabaki zuten Ekuador sartzeko EBn sartzeko bisa eskatu behar zuten hiritarren herrialde-zerrendan.

Ehuleen eta arropa nahiz artisau-lanak saltzen zituzten merkatarien talde honi<sup>7</sup> buruz dauden idatzietan, merkatari otabaloen irudi ona eman izan da, arrakas-tatsua; baina irudi hori ez dator bat, inola ere, egun Urduñan bizi diren fami-liekin. Egungoak oso familia gazteak dira, eta egoera berriak nahiz gero eta lehia handiagoa direla eta, kaleko salmenta beste lan batzuekin osatzen hasi dira, nekazaritza- eta eraikuntza-sektoreko zenbait lanekin, esaterako. Izan ere, Otabaloen bigarren migrazio-aldiaz ari gara, ez ekonomia-eliteko lehen aldi hartaz; orduan, komunitateetako ehuleak eta merkatariak lehenengo aldiz joan ziren Latinoamerikako beste herrialdeetara, AEBra, Kanadara eta Europara<sup>8</sup>, eta abileziak sartu ziren ehunen, artisau-lanen eta musikaren merkataritzea transna-zionalean. Munduan zehar bidaiatu zuten, eta kolonia iraunkorrak ezarri zituzten hainbat hiritan, Bogotan, New Yorken, Amsterdamen etaartzelotan, esaterako.

Otabaloen migrazioaren bi fase horiek mugitzeko moduaren arabera ere bereiz daitezke. Hau da, laurogeiko hamarkadan hasi eta laurogeita hamarga-rren hamarkadaren erdialdera arte, gizonezko gazteak ziren migratzaile otaba-lo gehienak; Europan bost edo sei hilabetez bidaiatzen zuten, eta gero, beren jatorri-komunitateetara itzultzen ziren, urtearen gainerako zatia pasatzera. Hilabete haietan, artisau-lanak saldu edo musika jotzen zuten kalean, eta oso ohikoa zen bi jarduerak txandakatzea. Gazte horietako askok furgoneta bat alokatzen edo erosten zuten; horrela, hainbat jai eta feriatara joan, eta lo bertan egin zezaketen. Beste batzuek, berriz, pisu edo gela bat alokatzen zuten, familien, lagunen edo jatorri bereko pertsonen sareak bitarteko. Neska gazte otabalok ere migratzen hasi ziren, haien anaiei, lehengusuei edo aitakideei etxeko lanetan laguntzeko, edo musikariek kalean jotzen zuten bitartean taldearen CDak saltzeko<sup>9</sup>; gutxiago ziren ordea.

Aldi hartan, salgaiak, arropak eta artisau-lanak Europara ekartzeko moduak nabarmen aldatzen ziren pertsonen edo haren fami-liek berez zuten kapital ekonomiko edo sozialaren arabera. Hau da, migratzaile batzuek airez ekartzen zituzten salgaiak Otavalotik, eta beste batzuek ahalik gehien betetzen zituzten maletak; beste batzuek, berriz, Otavalotik kopuru handietan ekar zitzaizketenei erosten zizkieten salgaiak, eta gero, beren salmenta-postuetan saltzen zituzten.

<sup>7</sup>Tkus, bereziki, Atienza de Frutos (2009); Kyle (2003); Maldonado (2001) eta Meisch (2002).

<sup>8</sup>Maldonadok (2004) eman zituen datuak oinarri hartuta, ikus dezakegu hirurogeiko hamarkadaren amaierarako, jada, Peguche eta Quinchuqui komunitateetako zenbait gizon Kolonbiara, Venezuelara, Mexikora eta AEBra joan zirela; hirurogeita hamarreko hamarkadarako, berriz, Agato komunitateko kideek ozeanoa zeharkatu zuten, Espainiara bidean.

<sup>9</sup>Aitzitik, migrazio-prozesuen aitzindari izan ziren emakume otabaloen kasuak aurki daitezke.

Nolanahi ere, laurogeita hamarrek hamarkadaren erdialdera arte, salmentak oso probetxugarriak izan ziren kontinente zaharrean: florinetan, markoetan edo frankoetan saltzen zen, eta horrek irabazi handiak eragiten zizkieten Ekuadorreko txanponera aldatzean. Zenbait lekutan izandako arrakastaren ondorioz, ordea, beste merkatari eta musikari batzuk etorri ziren; beraz, urte gutxian, Europako merkatua Andeetako arropaz, artisau-lanez eta musikaz bete zen, eta aldi berean, Europako erosleak interesa galduz joan ziren.

Bien bitartean, Otavalon ez zen oharkabean pasa merkatarien eta musikarien arrakasta. Txanpon ahul baten (adibidez, sucrearen) balioarekin egindako produkzio bat txanpon indartsu baten balioan salduz, diru-oparotasun handia sortu zuen Otavalo eremuan eta haren inguruko komunitateetan. Denborarekin, ordea, kapital-metaketa hark inflazio-joera eragin zuen eremuan; lurzoruaren kostua, arropak egiteko materialak eta bizitza-kostua, oro har, garestitu egin ziren. Horrez gain, testuinguru hartan, etxeko talde berriek eta eskarmenturik gabeek erabaki zuten ehun-salerosketan hastea, eta beraz, ehunen kalitatea gutxituz joan da; bestalde, prezioak merkatuz joan dira, bai Otavaloko turistentzako toki-merkatuan, bai nazioarteko merkatuan. Halabeharrez, lehiakortasun-mailak areagotu egin dira merkatarien artean, eta horrek, aldi berean, prozesu kritikoa eta tentsioz bete eragin du taldearen elkarrekikotasun-balioen eta merkataritzaren interesen artean.

Esparru berri horretan, eta iraganeko behin-behineko mugimenduak nahiz zentro finkatuak ez bezala, familia oso gazteak hasi dira migratzen; horiek, hain zuzen, Espainiako hainbat lekutan finkatu dira, eta hainbat urte daramatzate bertan bizitzen. Egoitza finkoa izate hori (batzuetan besteetan baino egonkorragoa dena) bateragarria da oraindik hainbat desplazamendu egitearekin; desplazamenduak askotarikoak dira iraupenari eta distantziari dagokienez. Zehazki, Urduñan, familia otabaloak udalerrian egon ohi dira urritik martxora bitartean, eta gertuko herrietako feriatara eta jaietara joaten dira saltzera. Gabonetan, berriz, asko joaten dira Bilboko erdialdeko kaleetara saltzera: batzuk *pirata*<sup>10</sup> gisa (erdi-ekzutuan), eta zorionekoenak artisau-azokako postuetan. Apiriletik irailera bitartean, leku urrunagoetara joaten dira, eta denboraldi luzeagoak pasatzen dituzte. Badira kostaldeko zenbait udalerritan (Laredon edo Santanderren, adibidez) saltokiak gordeta dituzten familiak, bai eta Frantziara, Holandara edo Italiara bidaiatzen dutenak ere. Horrez gain, Amerikako beren jatorri-komunitatera ere itzultzen dira, bi edo hiru urtean behin; denbora-epe hori, hain zuzen, luzeegia izaten da otabaloar gehienentzat.

<sup>10</sup>Hala esaten diote otabaloek kalean eta legeak baimendu gabe egiten den salmentari.

Migrazio-eredu berri horren ondorioz, nabarmen gutxitu da mugikortasuna iraganarekin alderatuz; gainera, lotura estua du Espainiako legedian 2003ko abuztuan egin zen aldaketarekin. Orduetik, bisa eskatzen zaie gure herrialdean sartu nahi duten ekuadortarrei; horrenbestez, Europara bidaiatu duten otabalok irregulartasun-egoeran badaude eta haien herrialdera itzultzen badira, ez dute hain erraza berriro European sartzea. Urduñako familien legezko egoera askotarikoa da, baina gehienak irregulartasun-egoeran daude; beste hainbestek, berriz, egoitza-baimena besterik ez dute. Gutxiengoak du lan-baimena. Paperak eguneratuta edukiz soilik sar edo irten daitezke Espainiatik, inolako arazorik gabe; horregatik, zenbaitek lana bilatzen dute nekazaritza-sektorean edo eraikuntzan. Hau da, haien egoera erregularizatu nahi izaten dute Espainiatik irten eta berriro sartu ahal izateko.

Bestalde, Europako merkatuaren gehiegizko betetzeak (aurrez aipatu dugu) eta Ekuadorreko ekonomiaren dolarizazio-prozesuak otabaloen merkataritzako aldaketa agerikoena eragin dute; hots, saltzen dituzten salgaiak, gehienak jada ez baitira otabalok eginak. Aurrez aipatu bezala, salgaiak askotarikoak dira, lekuan lekuko modaren edo denboraldien araberrak. Salgai horien arrastoari jarraituz, Madrilgo Lavapias auzoko handizkari txinatar, indiar eta marokoarregana iritsi gaitzake. Halaber, egia da salgai horien artean Otavaloko<sup>11</sup> objektuak aurki ditzakegula, familia askok beren jatorri-komunitateetara egindako bidaiak baliatu eta hango produktuen kopuru txikiak ekaritzen baitituzte; txirulak, okarinak, poltsak, tagua haziz egindako eraztunak, etab.

Horrez gain, baldintza ekonomikoak eta politikoak ere asko aldatu dira, lau-rogeiko hamarkadan eta lau-rogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, *boom* ekonomikoa gertatu eta Otavalon bidaiatzeko grina sortu zenetik. Lehenengo merkataritza indigenek erraztasunak eta trebetasunak izan zituzten Europako merkaturan sartzeko; egun, ordea, merkataritza-familia gazteak dira, eskarmenturik gabek, eta elkarren artean lehiatzen dira, kalitate txarreko eta prezio baxuko produktuekin. Egonaldiak luzeagoak dira orain, eta familia osoak egoten dira; hori dela eta, testuinguru soziokultural eta juridiko arrotzetara egokitze-prozesuei aurre egin behar izaten diete. Etxe-talde horiek bizitzen jarri diren lekuetan jasan behar izaten dituzten presioak gogorragoak dira egun iraganean baino, eta horrek zalantza handia eragiten die etorkizunari dagokionez.

---

<sup>11</sup>Horrek ez du esan nahi derrigorrean Otavaloko artisau-lanak direnik. Otavalo hiria Hego Amerikako eskualdeko artisau-lanen merkataritza-gune garrantzitsuetako bat da, eta bertan, beste herrialde batzuetako artisau-lanak ere aurki daitezke, Perukoak edo Boliviakoak, adibidez.

## Indigenen identitatea: postmodernitatera egokitzeko elementua

Otabaloek hasi zuten ehunen eta artisau-lanen merkataritza transnazionalaren garapena eta sendotzea azaltzeko giltzarrietako bat, bitxia bada ere, talde indigenatzat duten identitatea da. Datu hori ondo ulertzeko, ezinbestekoa da ikuspegi historikoa aintzat hartzea; horren bidez, deskribatu ahal izango da otabaloen identitate etniko zehatza eraikiz joan dela denborarekin, eta horrela, haien merkataritza transhumantea garatzeko erabiltzen duten kapitalaren funtsezko zati bihurtu da.

Otabalo hiriaren zati bateko eta inguruko komunitateetako ehungileen eta merkatarien jatorriak atzera egiten du ekoizpen prehispanikora arte; ekoizpen hura merkataritza-ibilbide espezializatu batzuei esker gertatu zen<sup>12</sup>. Merkataritza hura gizarte-talde espezializatu batek kontrolatzen zuen: *mindalaeek* edo indio merkatariek<sup>13</sup>. Garrantzitsua da azpimarratzea mindalaeen irudi hori suspertu egin dela egungo migratzaile eta merkataritza gazteen alegiazko autoulermenean. Bestalde, esanguratsua da iturri akademikoetan, eta baita Otavaloko turismo-gidetan ere, otabaloak noblezia inkarekin lotzen direla; alegiazko genealogia horri esker, gizarte menderatzailearen eta beste talde indigena batzuen aurrean aurkez daitezke inken zuzeneko oinordekotzat. Lotura horien egiazkotasunak ez du asko axola; garrantzitsuena da aztertzea zer esanahi hartzen duten historiako hainbat unetan, hainbat talderentzat eta zer asmotarako.

1532an espainiarrak iritsi zirenean, Espainiako Koroak ehun-lantegi<sup>14</sup> izeneko merkataritza-enpresa bereziak ezarri zituen XVII. mendean. Egoera horren ondorioz, garapen berezia izan zuten komunitate haiek; izan ere, ez zituzten

<sup>12</sup>Ikus Caillavet (2002) eta Jaramillo (1990).

<sup>13</sup>Gai hau aztertzeko, ikus Salomon (1981) eta Caillavet (2000).

<sup>14</sup>Mendialdeko eremu hartako oihalgintza-zentro garrantzitsuenetako bat Otavaloko ehun-lantegi handia izan zen; 500 langile indigenak egiten zuten lan han, eta ehun-ekoizpeneko gune handienetako bat izan zen aldi kolonialean. Bestea, berriz, Peguchekeo ehun-lantegia izan zen. Halaber, ehun-lantegi txikiagoak izan ziren, pribatuak.

izan beste komunitate indigena batzuek, Amerika kolonialean, ogasunekin izan zituzten besteko mendekotasun- eta dependentsia-harremanak<sup>15</sup>.

XIX. mendean, jada Ekuadorreko Errepublika zela, benetako ehun-industria garatu zen Otavalon. Garapen hark lotura du lurraekin eta haren ustiapen-ereduarekin; izan ere, lurra urriak ziren eta presio demografikoa etengabe handitzen ari zen testuinguruan, ehunen ekoizpena eta salmenta gero eta indar handiagoa lortuz joan zen. Prozesu horretan, elite zuri eta mestizoak ez ziren izan gai oihal-ekoizpenaren industrializazioa gidatzeko, tokiko eta mendeko esku-lana erabiliz; horrenbestez, otabaloez independentzia ekonomiko handia izan zuten.

Garapen horrekin guztiarekin batera, berehala, otabaloen identitatea modu positiboan berreraiki zen; indigenen atzerakadaren arau orokorra indartzen zuen salbuespena izan zen (Kyle 2000; Meisch 2002). Hau da, arrazoimenik gabeko gizakitzat, alfertzat, mozkortzat eta zikintzat hartzen zituzten indioak; indio otabaloak, berriz, garbiak, langileak eta zintzoak zirela esaten zen. Irudikari hori elite nazionalistek sortu zuten, batez ere; bereziki, 1892an, Madrilan egin zen Amerikaren aurkikuntzaren laugarren mendeurreneko ospakizunaren baitan<sup>16</sup>. Garai hartan, Ekuadorren hazkunde ekonomikoa gertatzen ari zen, kakaoaren ekoizpenari eta esportazioari esker, eta Ekuadorreko politika- eta merkataritza-eliteak interes berezia zuen nazio “garatuen” aurrean nazioarteko beste aktoretzat aurkezteko. Asmo haien zeharkako emaitza izan zen diskurtso berezi bat sortzea, Ekuadorreko biztanleria mestizoaren iragan noble eta aristokratikoa aipatzen zen diskurtsoa sortzea; diskurtso hartan, indio otabaloak hartu ziren erreferentziatzat, inka nobleen ondorengotzat baitzituzten. Otabaloak, beraz, nazioaren iragan nobleenaren adierazpen bihurtu ziren, eta aldi berean, etorkizun desiragarri, zibilizatu eta naturala, gainerako herri indigena guztiek xede izan behar zutena.

XX. mendean, Kyle (2000) adierazi bezala, otabaloen merkataritza transnazio- nalaren garapena eragingo zuen hiru gertaera garrantzitsu gertatu ziren. Lehenik eta behin, 1917. urtean, oihal-ehun ingelesa sartu zen Ekuadorreko hiri-merkatuan; horren ondorioz, beraz, otabaloak espezializatu egin ziren inportatutako oihal-mota berezi haien kopiak edo imitazioak egiten, eta hala,

---

<sup>15</sup>Noski, Otabaloko biztanleak esplotatu egin zituzten Espainiako kolonoen kontrolpean, eta triskantza handia eragin zuten; baina Koroarentzat zuzenean lan egiten zutenak izanik, abantaila bereziak izan zituzten.

<sup>16</sup>Indio otabaloen irudikari hori Muratoriok (1994) Kongresuan aurkeztutako txostenari buruz egin zuen azterketa batean dago jasota; txosten hura, hain zuzen, Ekuadorrek laugarren mendeurrenean parte hartzeko funtsak lortu asmoz aurkeztu zuten.



prezio merkeagoan sal zitzaizkiren. Geroztik, trantsizio geldia baina tinkoa hasi zen, nekazaritzan eta artisau-lan txikietan oinarritutako ekonomia batetik modernizazio-prozesuan zegoen ekonomia etnikora (Korovkin, 1997, 1998). Berrogeiko hamarkadaren amaierarako, otabaloek ehunak, “indioak” nahiz “Europakoak”, komertzializatzen zituzten Ekuador osoan eta Kolonbiaren zati batean. Hain zuzen, urte haietan, Parsons antropologo iparramerikarrak azterketa etnografiko bat egin zuen Otavalo eremuan<sup>17</sup>. Egindako landa-lanaren ondorioetako bat Rosa Lema berriemaile nagusiak Estatu Batuetara egindako bisita izan zen. Emakume hark gerora egin zituen hiru bidaiak diplomatikoak (horietako bat Ekuadorreko orduko presidentearekin) harremanak egiteko baliatu zituen, bai eta Estatu Batuetako gizarteari turismo-erakarpen handiko eskualde bat zela ezagutarazteko ere. 1949an, J. Collier eta A. Buitron egileen *The Awakening Valley* argazki-liburua argitaratzeari esker, eskualdeari eta kultura otabaloari buruzko interesa areagotzen lagundu zen.

Rosa Lemaren bidaiak eta aipatutako argitalpenek geroztik, aldatetako areagotu egin ziren eta Otavaloko merkataritza-klase aberatsa sortu zen. Aldi hartan, otabaloek alde batera utzi zuten oihal ingelesaren kopiak egitea, eta beren ekoizpena moldatzen hasi ziren, turistentzako tokiko merkatua eta kanpoan indigenen artisau-lanengatik sortu zen eskaera zirela eta.

Prozesu luze horretan guztian, otabaloen ezaugarri nagusia ez da izan eskaera bati erantzuteko gai izan den ekoizletzat izan duten industria-trebetasuna; hots, haien kultura-identitateari beste ukitu exotiko bat eman diote, sal daitekeen identitate bat bailitzan.

Hirurogeita hamarreko urteen erdialdean, garapenerako nazioarteko agentziak ehungile otabaloengana joaten hasi ziren, eta horri esker, lehendik eta etengabeko mugimenduan zegoen ekonomia modernizatu egin zen. Une hartan sartu ziren Amerika osoko beste talde indigena batzuen diseinuak eta mendebaldeko artistek egindako motiboak, komunitate otabaloari buruz zegoen jatorrizkotasun-irudiarekin bat zetozenak<sup>19</sup>. Baina fase horren ezaugarri nagusia izan zen ekoizpen-aparatua merkatuak eta ekoizpen malguak ematen zituen nitxo berrietara bideratzea, teknologia eta diseinu berriak sartzeaz gain.

<sup>17</sup>Ikus Parsons (1945).

<sup>18</sup>Ikus Collier eta Buitrón (1949).

<sup>19</sup>Hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, AEBko “Cuerpo de Paz” taldeko kideek (eremu hartan 1968tik zeuden) diseinu berriak sartu zituzten Otavaloko ehun-produkzioan. Ekuadorreko beste eremu batzuetako koloniarreko diseinuez gain, beste hainbat talderen motiboak sartzen hasi ziren: jibaroenak, maienak eta herri-indioenak.

Hirurogeiko hamarkadaren amaierarako, ehunen ekonomiaren zirkuitua Latinoamerika guztira eta Estatu Batuetara zabaldu zen.

Otabaloen merkataritza-garapenerako, funtsezkoa izan zen, halaber, Otavalo hirian turistentzat *Pontxoen plaza* irekitzea<sup>20</sup>, bai eta 1973an errepide panamerikarra zolatzea ere; azken horri esker, Quito hiribururako eta hango aireporturako bidaia bi ordura murriztu zen. Bi gertaera horiek zehaztu zuten egungo komertzializazio-aldi orokorra. Ekoizpenaren kapitalizazioa handitu eta migrazio transnazional handiaren gorakada ekarri zuen; jada, Amerika osora, Europara, Asiako zenbait herrialdetara (adibidez, Koreara eta Japoniara) eta Australiara iritsi zen otabaloen migrazioa. Aldi hartan, aldaketak gertatu ziren salgai-katean, eta Latinoamerikako beste talde indigena batzuen ehunak eta artisau-lanak beraienak bailitzan saltzen hasi ziren otabaloak<sup>21</sup>. Horrela, otabaloak Latinoamerikako berezko artisau-lanen bitartekari-talde nagusietako bat bihurtu ziren; berezko biztanleria indigena koloretzurik ez duten leku turistikotan artisau-lanak hornitzera ere iritsi ziren.

Egun, oso zaila dirudi atzerrian dagoen biztanleria otabaloaren kopuru zehatzak jakitea, nazioan edo eskualdean egiten dituzten estatistiketan ez baitituzte bereizten talde indigena bereiztat. Meisch (2002) egileak, Otavaloko merkataritza transnazionala aztertu zuenean, kalkulatu zuen 60.000 pertsonako biztanleriatik (2001ean), 4.000 otabalo zeudela atzerrian finkatuta eta beste 6.000k urte-sasoia araber bidaiatzen zuela. Dударik gabe, otabaloak etengabe batetik bestera ibiltzeak zaildu egiten du era horretako kopuruak ematea. Baiezta daiteke zenbait kolonia jada finkatuta daudela, batez ere honako haue-tan: Bogotan eta Popayan (Kolonbia); New York, Chicago, San Frantzisko, Portland eta Seattle hirietan (AEB); Bartzelonan (Espainian) eta Amsterdamen (Holanda).

Gertatu diren aldaketa ekonomiko eta sozialen ondorioz, bereziki munduan gertatzen ari den migrazio jendetsuaren ondorioz, gizarte otabaloa bizkor hiritartu da; nolahi ere, hiritartze-prozesu hori hobeto ulertzen da kultura-maileguko prozesutzat, akulturazio-prozesutzat baino. Otabaloen identitatea,

<sup>20</sup>*Pontxoen plaza* eraikitzea Holandako gobernuak babestu zuen, Otavaloko Antropologia Institutuarekin elkarlanean. Lotura horiek azaltzen dute, neurri batean, Holanda izatea Europako kontinenteko helburu-herrialde gustukoenetakoa; halaber, lotura horren ondorio izan dira Holandako emakumeen eta Otavaloko gizonen artean sortutako hainbat afektibitate- edo bikote-harremak.

<sup>21</sup>Egun, Euskadin bizi diren otabaloak nazionalismoaren eta euskal kulturaren identitate-ikurrekin komertzializatzen hasi dira. Familia otabalo batekin hitz egiten egon nintzen, Bilbo erdian, Guggenheim museo turistikotik gertu, lokal bat hartzeko zituzten proiektuei buruz, eta galdetu nien zer salgai-mota salduko zuten; erantzuna argia eta berehalakoa izan zen: "txapelak, ikurriak, lauburuak, Athleticeko bufandak, etab".

beste edozeinena bezala, eraikuntza eta estrategia aldakorra da, eta egun iraganean baino errepertorio kultural zabalago eta askotarikoago baten baitan eratzen da. Horrez gain, biztanleria zuri-mestizoaren eta indigenen arteko botere-harremanak asko aldatu dira, eta egun, hiriko udal-gobernuaren lehen-dakaritza indigena baten eskuetan dago. Gainera, merkatari gisa izan duten arrakastaren nahiz Iparramerikako eta Europako turistak Otavalora iristearen ondorioz, indigenek pertsona zuriez zuten pertzepzioa aldatu egin da. Antzina, kategoria etnikoak bi taldetan bereizten ziren: *runak* (indigenak) eta *mishuak* (zuriak); egun, ordea, zurien beste talde bat agertu da: *gringo*<sup>22</sup>. Gringo edo benetako zuriaren aurrean, *mishu* terminoaren bidez maila baxuagoko Ekuadorreko zuriak izendatzen hasi dira; elite politiko indigenek eta akademiakoek, berriz, mestizoak izendatzeko erabiltzen dute termino hori. Zurien eta indigenen antzinako tipologia itxuragabetu egin dira, eta beste errealitate bat sortu da.

Historian zehar, merkatari otabaloek malgutasun handia eta aldi bakoitzera egokitzeko gaitasuna erakutsi dute; horri dagokionez, otabaloen identitate etnikoa funtsezko elementua izan da haien ekonomia garatzeko. Otavaloko merkatariak eta saltzaileak haien indio-itxurari etekina ateratzen jakin dute; itxura hori, hain zuzen, Ekuadorreko prozesu postkolonialen ondorioz eraiki da. Irudi hori eraikitzen lagundu du, halaber, europar askok indigena bati (kasu honetan, andetar bati) buruz dugun ikuspegi estereotipatu eta erromantikoak. Dena den, egia da, baita ere, etnizitatearekin komertzializatzearen lehia-abantaila aldatuz doala, poliki-poliki, eta indarra galtzen ari dela; agian musikari otabaloen kasua izango da eraldaketa hori hobekien azaltzen duen kasua, funtsean estrategia-mota horien gordintasuna agerian uztearekin baitu lotura.

Lehen aipatu dugunez, laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan Europako kaleak Andeetako folk-musika egiten zuten gazte-talde otabaloen agertoki izan ziren. Merkatu-asetasuna eta Europako oinezkoen aspertzea zirela eta, otabaloek berriro egokitu behar izan dute, eta horretarako, beste salmenta-estrategia batzuk diseinatu dituzte. Hala, orain dela urte askotatik, Otavaloko musikari-talde batek Bilboko Areatzan jotzen du, larunbatetan eta igandeetan. Gazte horiek Iparramerikako indioen mendebaldeko irudikapenaren arabera jantzen dira, eta musika berezia jotzen dute, musika folklorikoa-

<sup>22</sup>Nolanahi ere, Europara egindako migrazioaren ondorioz, *gringo*en kategoria zabala eta abstraktua ñabartu egin da. Hala, otabalo batek baino gehiagok azaldu dizkit Europa iparraldeko herrialdeetako jendearen eta Espainiakoen arteko desberdintasunak; azken horiek "antz handiagoa dute Quitokoeekin". Noski, *gringo* taldea Iparramerikako edo Europako pertsonen irudian oinarritu da: altuak, ilehoriak eta azal zuri-zurikoak; itxura fisiko hori, hain zuzen, ez da oso ohikoa Espainian.

ren eta “new age” estiloaren artean. Ikuskizunak jende-kopuru handia erakartzen du, eta harriduraz ikusten dute taularatze profesionala, haurrek, bereziki. Nolanahi ere, behin baino gehiagotan entzun izan dut ez dagokien kultura baten antzeppen horrek sortzen duen nahigabea. Dirudienez, etnizitatearekin komertzializatzeko estrategiak ere baditu mugak, kultura bera salgaitzat jartzekak eragiten duen efektuaren ondorioz sortuak.

Guri orain interesatzen zaigunarekin lotuta, otabaloei beren identitatea erakitzeke garatu duten modu berezi horren ezaugarri nagusia da merkataritza-trukerako prozesu ireki bati erantzuten diola, mugak ixteko prozesu bati baino gehiago. Otabaloen identitate etnikoak, ezinbestean, lurralde-euskarri eta ingurune geografiko zehatzak ditu erreferentetzat; baina, horrez gain, baditu beste osagai garrantzitsu batzuk ere, mugaz haraindikoak eta kosmopolitak, merkataritza transhumantearen eta indio merkatarri nahiz bidaiariaren irudiaren gainean eraiki baitira. Ezaugarri goiztiar eta berezia da, eraikuntza etniko hori nabarmentzen duena eta kasu zehatzat bereziki erakargarri bihurtzen duena, migrazioen lurraldez haraindiko ikuspegitik.

## Talde otabaloaren mugikortasuna

Otabaloen etnizitatearen eraikuntza zehaztu duen eta horren ezaugarri bihurtu den bereizgarri bat izan da etengabe mugak zeharkatuz batetik bestera mugitzea; herrialde indigenak lurrari “lotuta” daudela adierazten duen ikuspegi klasikoaren (eta kutsu erromantikodunaren) aurrean, bidaiatzea bihurtu da otabaloen identitatearen berezitasun nagusietako bat. Otabalok batetik bestera mugitzen diren pertsonak dira, ez mapan zehaztu eta etengabe zeharkatzen dituzten hainbat eta hainbat zirkuitu daudelako soilik; hau da, modu batean edo bestean, mugikortasuna balio bihurtu delako baizik. Balio horrek ospea eta estatusa ematen dio pertsonari (Maldonado, 2004). Munduan barrena bidaiatzea da egun otabaloen identitate etnikoaren eta kulturalaren erreferente nagusia; erreferente hori, gainera, horrela da, egiaz atzerrian izan diren edo Otavalo hiriaz harago inoiz joan ez diren aintzat hartu gabe. Hain zuzen, eza-gutu ditudan emakume eta gizon otabaloek bidaiaritzat eta merkataritzat dituzte beren buruak, eta orain arte, sekula ez diet entzun migratzaile direnik.

Mugikortasuna funtsezko tresna bihurtu da otabaloentzat, elkarri gero eta lotuago dagoen munduan, azkarragoa eta konplexuagoa den munduan, moldatu ahal izateko; horri dagokionez, migratzaile otabaloen bizitzek globalizazioa garaiz (aurreratuta) eta arrakastaz egokitutako kasuak dirudite. Dena den, Urduñako migratzaile otabaloen kasuan aipatu bezala, orain dela urte batzuetatik, talde honen mugikortasuna mugatu egin da, bisak ezarri direlako eta Europako mugetako kontrolak gogortu dituztelako. Zentzu oso errealean, Urduñako familia migratzaileak legaltasun horrek “harrapatu” ditu, eta horregatik, hirian bizitzen jarri dira. Prozesu hori dela eta, Urduñan finkatu dira, nahiko modu iraunkorrean, eta horren ondorioz, familia horietako asko toki-erakundeekin elkarreraginean sartu dira, batez ere gizarte-zerbitzuekin izandako harremanaren bidez. Prozesu horiek agerian jarri dute biztanleria otabaloa, eta horrek arazo interesgarria piztu du: hau da, zenbat eta agerikoagoa izan bestea, are eta beharrezkoagoa izango da kodifika daitekeen logika batean sartzea, estatuko agentzien bitartez. Beraz, gero eta agerpen handiagoa izateak erantzukizun handiagoa eragingo du Euskadin bizitzeak berak dakarren integrazioarekiko.

Horrekin lotuta, interesgarria da aztertzea burokratek eta toki-erakundeetako langileek otabaloen egoerari dagokionez duten ikuspegi kontrajarria. Haiek behin-behineko egoeratzat hartzen dute talde horren mugikortasuna eta jarduera berezia, hurrengo belaunaldietan gaudituko den arazotzat; beraz, ez da harrizkoa familia otabaloak Bizkaiko udalerrri horretan behin betiko geldituko diren galderari Udalak eta beste erakundeek baiezkoa erantzutea. Nolanahi ere, erantzun bizkor hori –erakundearen itxaropenak eragindakoa, gertakarietatik ondorioztatutakoa baino– alde bakarreko ikuspegiaren parte da, bizitzeko aukera bakartzat hemen egotea edo han egotea (hots, lurraldean) hartzen duen ikuspegiaren parte. Gure “hemen” oinarri hartuta, integrazioarako toki-planetan, prentsan nahiz jardunaldietan “hiritar berriei” edo “auzotar berriei” etengabe egiten zaizkien erreferentziak azter ditzakegu, nazio-lurraldean bizitzea hiritarren eraikuntzarako funtsezko elementutzat erabiltzen eta hartzen duen ikuspegian (Súarez, 2007); baina hori ez da otabalo askoren ikuspuntua.

Ikuspuntuen aurkakotasun horrek agerian uzten du otabaloen ezaugarri bereizgarria, iragaitzako pertsonatzat hartzen dituen (haien irudikapenezko eraikuntza etnikoa), ez datorrela bat elementu batekin, subjektu modernoaren eredu menderatzaileak sortzen duenarekin, hots: sedentarismoa edo errotzea. Biztanleria otabaloaren etengabeko mugimenduak behin baino gehiagotan sortu ditu tentsioak toki-egiturarekin Urduñan. Otabaloen joan-etorriak desordenarekin lotzen ditu egitura burokratiko horrek, horrela ezin baita behar bezala kontrolatu zein dauden udalerrian edo zein ez dauden; horrez gain, zaildu egiten da gizarte-zerbitzuek haiek dituzten premien jarraipen argia egitea. Esaterako, eskola-egutegia gurutzatu egiten da Urduñako eta Europako gainerako herrietako otabaloak haien jatorri-komunitateetara itzultzen diren unearekin<sup>23</sup>.

Azken batean, era horretako tentsioak hiritarren eredu ideal baten ondorio dira, ez baitute beren burua ikusten estatu-nazioaren nahiz horren azpibana-tze baten mugetatik kanpo. Migratzaile otabaloek, ordea, muga horietan jokatutako behar dute, mugako hiritarrak diren heinean.

Eta oraingoz, zertan datza joko hori? Bada, beste estrategia batzuk garatzea, galdu duen mugikortasuna berreskuratzeko. 2008ko udaberrian, Urduñan bizi den emakume otabalo batek eskuratu berri zuen NANA erakutsi zidan,

<sup>23</sup>Urduñan bizi diren haur otabalo guztiak eskolatuta daude, eta gehienak Urduñako eskola publikora joaten dira; oso gutxi dira Antzinako Andra Maria ikastetxe erlijiosora joaten direnak. Kaleko salmenta eskola-egutegiarekin bateratzeko, doikuntzak egin behar izaten dira, baina horrek ez du eragiten eskolara huts egitea. Arazo larriena otsailean sortzen da, *Pawkar Raymi* ospatzera Ekuadorrera bidaiatzen dutenean, eta han hilabeterako edo bi hilabeterako geratzen direnean.

Espainiako hiritartzat hartzen zuena<sup>24</sup>. Pozik zegoen, eta oso lanpetuta Chicagora egin behar zuen bidaiarako maletan prestatzen; izan ere, han bizi da familiako bat. Hilabete batzuk pasatu nahi zituen han, Iparramerikako hiri hartan zer-nolako salmenta-baldintzak zeuden lekuan bertan ikusteko. Espainiako nazionalitatea lortuz, emakume otabalo haren bidaiaria eta salmenta-ibilbideak zabaldu egin ziren, eta mapan igaro beharreko beste gune batzuk gehitu zituen (Otavalo, Chicago, Urduña eta Europako beste hiri batzuk).

Beraz, nazionalitatea lortzea tresna bat da haientzat berriro mugak erraztasunez zeharkatu ahal izateko, eta horrela, nolabait ihes egiteko Europan sartzeko bisa-eskaerak ezarri zuen egoera estatikotik. Paradoxa oso adierazgarria da; izan ere, hiritartasuna (kasu honetan, Espainiakoa) lortzearen xedea da galdutako mugikortasuna berreskuratzea. Fenomeno hori guztiz kontraesankorra da hiritartasuna lortzeak tradizioz adierazi duenarekin. Hots, berez, prozesu juridiko bat da, pertsona bat bertako bihurtzen duena; hain zuzen, prozesu horretan ziurtzat jotzen den elementuetako bat da estatu-nazioaren mugen barruan modu iraunkorrean bizitzea eta egotea. Nolanahi ere, otabaloei dagokienez, hiritartasuna lortzeak gehiago dirudi estrategia bat, mugikortasuna berreskuratzeke eta zabaltzeko estrategia; hau da, nazionalizazioaren beste erabilera bat da, berezko logikarekin kontraesanean dagoena.

---

<sup>24</sup>2010. urtearen hasieran, jada lau familia otabalok zuten Espainiako nazionalitatea. Zehazki, emakume horren familia Ekuadorrera itzuli zen iragan urrian; haren asmoa da Otavalon bizitzea, eta udan, kalesalmentarako hilabete onetan, Espainian egotea. Horiez gain, ezin dira ahaztu Chicagora edo Europako beste leku batzuetara egingo dituzten bidaiak.





## Ikertzailearen esku-hartzeak eta harentzako erronkak

Merkatari otabalo bidaiari horien egoera oso baliagarria da ikuspegi transnazionalaren bidez aztertu nahi diren erronka teorikoak eta metodologikoak grafikoki erakusteko. Nolabait esateko, migrazio-prozesuak aztertzen dituztenek arazo bati egin behar diote aurre, kartografoak aurre egin beharreko arazoaren oso antzeko bati. Mapak egiten dituenaren antzera, funtsezko bi gai kontopontzea da: eskala-arazoa eta esanguratsua den zerbait deskribatzeko edo adierazteko arazoa. Hortaz, nola jabe gaitezke estatu-nazioarekin lotutako muga politikoez harago (edo honago) gertatzen diren prozesuez? Zer zentzu du gure azterketa-eremuaren mugak eskualdeko edo nazioko mugek mugarritutako eremura murriztea? Nola izan dezakegu tokian tokikoa baino harago doan ikuspegia, lurralde zehatz batekiko gutxieneko loturarik ez duten gizarte-harremanak eta kultura-praktikak hartzeko gai dena?

Hain zuzen, otabaloen migrazio-prozesua aztertzeko saiakeran, hainbat eta hainbat arazo izan ziren, landa-lanaren garapenean agertuz joan zirenak<sup>25</sup>. Alde batetik, ikerketa gehienak ongi mugatutako unitate soziologikoetan eta geografikoetan egin ziren; dena den, biztanleria otabaloaren lehenengo datu esanguratsua haien banaketa geografikoa eta haien etengabeko mugikortasuna ziren. Hori dela eta, ikerkuntza-gune zehatzetatik irten behar genuen, eta arreta jarri hainbat migrazio-lekuren artean dauden loturetan. Subjektua beste teknika batzuk erabiliz aztertu behar zen, adibidez: pertsonen (migratzaileen) jarraipena eginez, objektuen (salgaiak, opariak, dirua) ibilbidea aztertuz, metaforak (ikurrak eta irudiak) eta biografiak.

Teknika horien ondorioz, alde batera utzi behar da tradizioko logika, toki-eremu baten edo lurralde oso baten ikerkuntzan oinarritzen dena; lurralde horretan, gainera, kultura zehatz bat egongo litzateke, bertan dagoen gizartearen kultura, hain zuzen. Ikuspegi transnazional bat erabiliz, estatu-nazioaren

<sup>25</sup>Doktore-tesia prestatzean egin zen landa-lanari buruz ari naiz; parte-hartzaileen behaketan oinarritutako landa-lana; 2005 eta 2008 artean egin zen Urduñan eta salmentan aritzen ziren hainbat udalerritan: Bilbon, Amurrión, Abadiñon, Sestaon eta Barakaldon, bai eta ozeanoaren beste aldean ere, Peguchen eta Otavalon.

(eta horiek dituzten lurralde- eta kultura-muga argien) unitate minimoan eta bertakotuan oinarritzen den irudikapenez harago joaten da, argitara beste muga batzuk atera ahal izateko (mailena, generoarena, etniarena...). Egungo migrazio-dinamikek beste subjektu-mota bat erakusten digute; hau da, jada kategoria eta kontzeptu klasikoen bidez (kultura edo lurraldea) adierazten diren toki-testuinguruetan bizi ez dena.

Arazo horiek agerian geratu dira, eta beraz, horiek lantzen hasi dira, gizarte-zientzia modernoetan inplizituki dagoen “nazionalismo metodologikoa” kritikatzuz (Wimmer eta Glick Shiller, 2002). Kritika horrek erreferentzia egiten die paradigma inplizituak dituen (horiek oinarri hartuta landu dira gizarte- eta kultura-fenomenoak) eta haien azaltzeko gaitasuna modu larrian mugatzen duten kontzeptu-aurrebaldintzei. Mugatzeko aurrebaldintza horiek nazio-estatua-gizarte hirukoa mundu modernoaren eredu politiko eta sozial naturala dela onartuz gauzatzen da; beraz, aztertu beharreko prozesu politikoaren eta sozialen, haien esparruen eta haien subjektuen kontzeptugintza jakin bat zehazten du, halaberrez (“paradigma westfaliar” izendatu da).

Oraindik handia da gizarte-azterketen objektua mugatzeko joera, estatu-nazioaren mugak oinarri hartuta; puntu batera arte ezinbestekoa da, gizarte-zientzien irudikapena jatorri ia *naturala* eskatzen zaien kategorien bidez baitago osatuta (kultura, lurraldea, gizarte). Nolanahi ere, egungo fenomenoek (esaterako, migrazio transnazionalak) agerian uzten dute kategoria horiek erakitako jatorria dutela; hots, eraikuntza hegemonikoak dira, estatuaren boterearen eta menderakuntzaren erabilera historikoaren parte direnak. Talde etnikoa, arraza edo nazioa gizarte-eraikuntzak dira, eta halakotzat, kulturaren eta boterearen arteko harremanen adierazpen dira, ez mugaldeko kultura-desberdintasunen adierazpen. Beraz, transnazonaltasun-kontzeptuak begirada atzera botatzera behartzen gaitu, bai estatu-nazioaren logikari dagokionez, bai hori zalantzan jartzen duenari dagokionez. Hain zuzen, zalantzan jartzen dute, askotariko harremanen izaera politikoa eskatzen baitu berriro ere: familia-harremanak, genero-harremanak, lanekoak, komunitatekoak, etab.

## Hiritartasuna, estatu-nazioaren lurralde-banaketaren logika

Sistema ekonomiko global baten larrialdia –isuri transnazionalak eta komunikazio orokorrak ezaugarri dituen– estatu modernoaren eredu aldatsen ari da, subiranotasunaren eta lurraldetasunaren arteko bateragarritasuna harreman eksklusibotzat hartzen zuena, hain zuzen. Munduko ekonomiaren joera berrien ondorioz, egungoa desarautu eta legedi berria egingo da, kapitalaren zirkulazio askea baimenduko duena. Paraleloki, Europar Batasunean ikus daitekeen bezala, nazioko estatuak beren subiranotasunaren zati bat nazioaz gaindiko erakundeen esku uzten ari dira; horrenbestez, badirudi haien autonomiaren zati bat galtzen ari direla. Dena den, desarautze hori ez da gertatzen estatua-ren eskumen-eremu guztietan; aitzitik, zenbait arlo estrategikotan, estatua indartu egin da.

Sassenek (2001) adierazi bezala, mundu-mailako agindu berriak bereizitako bi egoera eragin ditu: *desnazionalizazioa* eta *bernazionalizazioa*. Egoera hori nabarmena da migrazio-egoeretan; izan ere, dituzten eskuduntzak galdu ordez, nazio-estatuak bere zentraltasunari eusten dio, mugak itxiz eta diskurtso politikoa *bernazionalizatu*tuz. Eremu ekonomikoen *desnazionalizazioak* ez dakar estatu-nazioaren iraungitzea, askotan transnazionalismoari buruzko diskurtsoak zabaltzen duen gisan. Etenkako eraldaketen testuinguru honetan, migrazioen azterketa arlo estrategiko bat da, globalizazio-prozesuko aurkakotasunak indarrez azaltzen baititu; hots: estatu-nazioaren esparruak gainditzea eta, aldi berean, esparru horiek etengabe sortuz joatea.

Estatu-nazioaren logika edo arrazionaltasunaren eta transnazionalismoaren arteko aurkakotasuna estatuaren egiturak eta funtzioak desegin edo desagertu ziren unetzat hartu zuten hainbat egilek; horrenbestez, migrazio-mugimendu transnazionalak (adibidez, biztanleria otabaloarena) askatasun- eta erresistentzia-kutsuaz hartzen dira. Dena den, badirudi kontu handiz ibili behar dela biztanleria horiek ez mitifikatzeko, egia baita erresistentziarako eta ihes egiteko estrategiak garatzen dituztela. Baina, era berean, egia da estatu-nazioek inposatzen dizkieten murrizketak, mugak eta desberdintasunak jasaten dituztela. Estatu-nazioa desagertzeari buruz neurri batean idealizatuta dauden ikuspegi horie-

tan ez erortzeko, ona da mekanismo zehatzak deskribatzen eta aztertzen jarraitzea; mekanismo horien bidez, migratzaile transnazionalak integratu, negoziatu eta bereizi egiten dira, haien helburua lortzeko: berriro bidaiatzea.

Azken batean, egungo migrazio-prozesuetako funtsezko alderdietako bat da zalantzan jartzen dutela hiritarren eredu nazionala, kultura bateko kidesun-kutsua ematen zaien lurralde-nozioekin lotuta dagoena. Aldiz, egungo esperimentziak erakusten du nazioko hiritarrek galdu egin dutela hiritartasun-eredu unibertsalago baten aldeko ideia; lurraldearekin loturarik ez duten nozioetan edo norberaren eskubideen nozio kosmopolitetan oinarritutako ereduarena: hiritar *postnazionalen* edo *transnazionalen* eredia.

Hiritarrek dituzten mugei buruz Soysalek (1994) egindako azterketan, honako ezaugarri hauek ditu hiritar *postnazionalaren* ereduak, nazioko hiritarrekin alderatuz: estatu-nazioaren mugetan nahiz lurraldearen eta leku bateko kide izatearen arteko ezinbesteko loturan oinarritutako eredu klasikoaren lurralde-dimentsioa (ingeles nazionalak soilik dituzte Ingalaterra nazioko eskubide eta pribilegioak); “*fluid boundaries of membership*” ideia bultzatzen du, hots, aginte-egituretan nahiz bizitza politiko publikoan parte hartzeko eskubidea eta betebeharra pertsona guztiei onartzen dieten hiritarrak dira, pertsona horiek komunitatearekiko dituen lotura historikoak eta kulturalak zeinahi izanda ere. Ildo horretan, arreta ohituretan, tradizioetan, erlijioetan eta abarretan jarri ordez, harrera-komunitateetako sistema politikoen erakundeei ematen zaizkie pribilegioak. Bestalde, nonbaiteko kide izatearen printzipio eratzaillea giza eskubideetan oinarritzen da; beraz, hiritartasun-eredu berri horren zilegitasun-iturria komunitate transnazionala da, ez estatu-nazioaren eredia.

Migrazio-mugimendu berrien transnazionaltasunak –hau da, aldi berean bi gizarteko edo gehiagoko kide izateak– adierazten du zalantzan jartzen direla hiritartasuna ulertzeko ikuskera tradizionalaren (hots, komunitate politiko bakarreko parte izatearen) oinarritzko premisak. Bauböck soziologoak migrazio-fenomenoaren ikuspegi transnazionalak hiritarrentzat izango litzuzkeen eraginak aztertu ditu, harrera-herrialdeetan. Lehenik eta behin, harrera-herrialdeko hiritartasuna hartzea norbanakoaren eskubidetzat hartu beharko litzateke, eta ez luke aurreko nazionalitateari uko egitea eragin behar: “*nazionalitate anizkoitza izatea hiritartasun transnazionalaren lege-adierazpen formula da. Horrez gain, hiritarrak onartzeko norbanakoaren eskubideak komunitate politikoaren mugak irekitzen ditu*” (Bauböck, 2004:197). Bigarren, ikuskera transnazionala nazionalismo hiritarraz harago doa; horri dagokionez, komunitate migratzaileentzat<sup>26</sup> zenbait kultura-eskubide aitortzeaz gain, gaia helburu-herrialdeen kultura publikoa eraldatzeko premian oinarritzen da. Hala

proposatu zuen Bauböck-ek; mendebaldeko gizarteetan kultur gune neutro bat sortzeko asmoa izateaz harago, gobernuek “*zerbitzu publiko eleaniztunak eman beharko lituzkete, eta beren historia publikoak berriro idatzi, etorkinen komunitateetako memoria kolektiboak eta mitoak aintzat hartuz*” (Bauböck, 2004; 198).

Beste hiritar batzuk eraikitzeke testuinguruan, zenbait egilek orain arteko proposamenak gainditu eta harago joan dira. Komunitate indigena mixtekek aztertuz, F. Besserer egileak proposatu du talde horren transnazionaltasunerako beharrezkoa dela horien *translokalitate*-egoera aintzat hartuko duen hiritargoa izatea; horrela, transmigratzaileak lehen-mailako hiritarrak izango dira eta haien eskubideak gauzatu ahal izango dituzte, haien komunitatea hedatzen den hainbat herrialde eta udalerritan<sup>27</sup>. Hiritarrek lurralde-mugez harago joan behar dute, eta bizitza komunitario transnazionalaren eremu konplexuan kokatu.

Amaitzeko, egia da transnazionalismoari buruzko tirabira eztabaida akademi-koan sartu dela, eta horri dagokion hiztegi espezializatua hartu duela; gainera, urruntasun apur bat ezarri da pertsona migratzaile guztiek nahiz gai horrekin lotutako eremuetan (arloan sozialarekin, kulturalarekin, hezkuntzakoarekin eta osasun-arloarekin lotutakoak) lan egiten dutenek egunero aurre egin behar izaten dieten errealitateekin. Horrez gain, ezin ahaztu ikertzaileok askotan transnazional terminoaz egiten dugun erabilera, zehaztasunik gabea eta lausoa; hori dela eta, guztion artean beste etiketa bat eraiki dezakegu, modan dagoena baina ahalmen analitikorik eta politikorik gabea.

Hala ere, uste dut ikuspegi transnazionalak ondorioak dituela politika publikoen eremu zehatzenean; beraz, zenbait zientziak (gizarte-antropologia edo soziologia, adibidez) ez dira eta ez dute izan behar lan teoriko hutsak, gizartean inolako eragin eta ondorio politikorik ez dutenak. Ikuspegi transnazionalari esker, estatu-nazioa ereduareferentzia-puntu bakartzat duten politiken eta eredu horrekin lotutako kategorien gabeziak eta nolabaiteko porrota egiazta eta uler ditzakegu. Migrazio-ereduetan nahiz, bereziki, estatuaren beraren eta estatu arteko sistemaren funtzioan gertatzen ari diren eraldaketak estatuek aintzat hartu ezean, migrazio-politikak mugatuak eta eraginkortasunik gabeak izango dira migrazio-fluxuak eta pertsona migratzaileen integrazio-aukerak kudeatzeko.

<sup>26</sup>Komunitate migratzaileen kultura-eskubideen gaia sakon aztertzeko, ikus Kymlicka, W., 1996, *Ciudadanía Multicultural*, Bartzelona, Paidós.

<sup>27</sup>Ikuspegi bera landu du Ong-ek (1999).



## Bibliografia

- ATIENZA DE FRUTOS, D. (2009): *Viaje e Identidad. La génesis de la élite kichwa-otavaleña en Madrid*, Espainia. Quito-Ekuador: Abya Yala.
- BASCH, L.; GLICK SHILLER eta SZANTON-BLANC (1994): *Nations Unbound: Transnational Projects, Postcolonial Predicaments and Deterritorialized Nation-States*. Estatu Batuak: Gordon&Breach Science Publishers.
- BAUBÖCK, R. (2004): “Cómo transforma la inmigración a la ciudadanía: perspectivas internacionales, multinacionales y transnacionales”, in: Aubarell, G. eta Zapata, R. (eds.). *Inmigración y procesos de cambio*. Bartzelona: Icaria, 177-215.
- BESERER, F. (1999): “Estudios transnacionales y ciudadanía transnacional” in: Mummert, G. (arg.) *Fronteras fragmentadas*. Mexiko: Colegio de Michoacán-CIDEM, 215-238.
- CAILLAVET, Ch. (2000): *Etnias del norte: etnohistoria e historia de Ecuador*. Quito: Ekuador.
- COLLIER, J. eta BUITRON, A. (1949): *The Awakening Valley*. Chicago: University of Chicago Press.
- FAIST, T. (2004): *The Volume and Dynamics of International Migration and Transnational Social Spaces*. Oxford: Clarendon.
- GIDDENS, A. (1990): *The Consequences of Modernity*, Stanford, C.A: Stanford University Press [gaztelaniako bertsioa: (1995). *Consecuencias de la Modernidad*. Madril: Alianza argitaletxea].
- GLICK SHILLER, N. eta FOURON, G. E (1999). “Terrains of blood and nation: Haitian transnational social fields”. *Ethnic and Racial Studies* 22 (2): 341-365. [Gaztelaniako itzulpena: “Los Terrenos de la sangre y la nación: los

- campos sociales transnacionales haitianos”, in: Portes, A., Guarnizo, L. eta Landolt, P. (2003) *La globalización desde abajo: transnacionalismo inmigrante y desarrollo*. Mexiko: FLACSO / Porrúa, 193-222.].
- GLICK SHILLER, N., BASCH, N., SZANTON-BLANC, S. (1992). “Towards a Transnational Perspective on Migration. Race, Class, Ethnicity and Nationalism Reconsidered”, in *Annals of the New York Academy of Sciences*, 645. lib., New York: The New York Academy of Sciences.
- HANNERZ, U. (1996): *Transnational Connections: Culture, People, Place*. Londres: Routledge.
- KYLE, D. (2003): “La diáspora comercial de Otavalo: capital social y empresa transnacional”, in: Portes, A.; Guarnizo, L. E; Landolt, P. (arg.). *La globalización desde abajo: transnacionalismo inmigrante y desarrollo. La experiencia de EEUU y América Latina*. Mexiko: FLACSO México/Porrúa, 315-348.
- \_\_\_\_\_, (2000): *Transnational Peasant Migration, Networks and Ethnicity in Andean Ecuador*. Baltimore: Johns Hopkins University Press.
- \_\_\_\_\_, (1999): “The Otavalo trade Diaspora: social capital and transnational entrepreneurship”. *Ethnic and Racial Studies* 22 (2): 423-446.
- MALDONADO, G. (2004): *Comerciantes y viajeros*. Quito: FLACSO Ekuador.
- MEISCH, L. A. (2002): *Andean Entrepreneurs. Otavalo Merchants and Musicians in the Global Arena*. Austin: University of Texas Press.
- MURATORIO, B. (1994): “Nación, identidad y etnicidad: imágenes de los indios ecuatorianos y sus imagineros a fines del siglo XIX”, in: Muratorio, B. (arg.). *Imágenes e imagineros. Representaciones de los indígenas ecuatorianos, siglos XIX y XX*. Quito: FLACSO-Ecuador, 109-197.
- ONG, A. (1999): *Flexible Citizenship. The Cultural Logics of Transnationality*. Londres: Duke University Press.
- \_\_\_\_\_, (1996). “Cultural Citizenship as Subject-Making”. *Current Anthropology* 37 (5): 737-762.
- PARSONS, E. C (1945): *Peguche. Canton of Otavalo, Province of Imbabura, Ecuador. A Study of Andean Indians*. Chicago: University of Chicago Press.



- PORTES, A. (1997): "Globalization from below: the rise of Transnational communities". Transnational Communities Programme Working Paper Series, *WPTC-98-01*. Princeton University. [http://www.transcomm.ox.ac.uk/working\\_papers.htm](http://www.transcomm.ox.ac.uk/working_papers.htm) [13-03-05]
- PRIES, L. (ed.): (1999) *Migration and Transnational Social Spaces*. England: Ashgate.
- ROUSE, R. (1993): "Making Sense of Settlement: Class Transformation, Cultural Struggle, and Transnationalism among Mexican Migrants in the US", in: Glick Shiller, N. (et. al.) *Towards a Transnational Perspective on Migration: Race, Class, Ethnicity, and Nationalism Reconsidered*, New York: The New Academy of Sciences 645, 22-55.
- SALOMON, F., (1981): "Weavers from Otavalo", en: Whitten, N. E. (ed.). *Cultural Transformations and Ethnicity in Modern Ecuador*. Urbana: University of Illinois Press, 421-449.
- SASSEN, S. (2001): *¿Perdiendo el control? La soberanía en la era de la globalización*, Bartzelona: Bellaterra.
- SMITH, R. (1998): "Transnational Localities: Community, Technology and the Politics of Membership within the Context of Mexico and U.S Migration", in: Smith, M. P eta Guarnizo, L. E. (eds.). *Transnationalism from Below*. New Brunswick and Londres: Transaction Publishers, 196-241.
- SOYSAL, Y. (1994): *Limits of Citizenship. Migrants and Postnational Membership in Europe*. Chicago: University of Chicago Press.
- SUAREZ-NAVAZ, L. (2004): *The Rebordering of the Mediterranean. Boundaries and Citizenship in Southern Europe*. Oxford: Berghahn Books.
- \_\_\_\_\_, (1999): "¿Hacia una ciudadanía postnacional? Fronteras interiores, integración y normalización" in *Actas del VIII Congreso de Antropología Española*. "Globalizazioa eta Mugak" gaiari buruzko sinposioa. Santiago de Compostela, 205-215.
- WIMMER, A. eta GLICK SHILLER, N., (2002). "Methodological nationalism and beyond: nation-state building, migration and the social sciences", in *Global Networks* 2 (4): 301-334.

